



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA GARATZEKO INFORMAZIOA LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILAN

Lehen Hezkuntzako 3. mailako Ebaluazio Diagnostikoa **barne-ebaluazio irekia eta malgua da**. Bertan, bere autonomia pedagogikoaren eta antolakuntzaren arabera eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum ezartzen duen 236/2015 Dekretuan adierazitakoa kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzak hainbat aukeraren artean hautatu dezake ebaluazioaren garapena, ikastetxeak dituen beharretara, ezaugarrietara eta Curriculum Proiektura egokituta.

ISEI-IVEI erakundeak bere webgunean (<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/lh3>) hainbat material: araudi erreferentzia, konpetentzien markoak, proba ereduak eta matrizeak, orientazioak eta ebaluazioaren plangintza, aplikazio eskuliburua, zuzenketa materialak eta irizpideak argitaratu zituen ebaluazio hau garatzeko.

Prozesu hau guztiz garatzeko, Hezkuntza Sailak tresneria osatu bat jarri du Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztien eskura, ISEI-IVEIk eta Berritzeguneak espres sortu dituzten lanabes eta ebaluazio prozesuak eskainiz, aldez aurretik kontrastatuak izan direnak Lehen Hezkuntzako 3. mailako irakasleekin eta berariaz pilotatuak hauen kalitate teknikoa bermatzeko eta maila jakin honi dagokion ongi egokitzea.

Ikastetxeei ondoko **hiru aukerak** eskaintzen zaizkie:

I. ISEI-IVEIk eta Berritzeguneak landutako probetako batzuk edo guztiak aplikatzea.

Hala erabakiz gero, bi aukera izango ditu:

- a. Hauek **ordenagailuan edo tabletean aplikatu**, eta ISEI-IVEIren aplikazioa erabili ikastetxeko eta familien txostenak sortzeko. Edota,
- b. Probak **paperean aplikatu** eta ISEI-IVEIren aplikazioa erabili datuak sartzeko eta ikastetxeko eta familientzako txostenak sortzeko.

II. Ikastetxeak berak sortu dituen probak aplikatu, eta ISEI-IVEIren aplikazioa erabili ikastetxeko eta familientzako txostenak sortzeko.

III. Ikastetxeak berak sortu dituen probak aplikatu eta bere txosten propioak sortu, ISEI-IVEIk proposatutako baliabideak batere erabili gabe.

I. edo II. aukerak hautatu eta ondoren zehazten diren epeak betetzen dituzten ikastetxe guztiek jasoko dituzte ikastetxeko emaitzen txosten bat eta beste txosten individualizatu bana familia bakoitzarentzat, biak ISEI-IVEIk eginak.

Jarraian zehazten dira Ebaluazio Diagnostikoko prozesu honetako fase desberdinei buruzko informazioak, lagungarri izan daitezkeelakoan zure ikastetxean eta irakasle taldearekin erabakiak hartzeko garaian.



Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazio-prozesu hau zortzi ataletan banatu da.

1. EBALUATU BEHARREKO KOMPETENTZIAK AUKERATZEA.

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du zer kompetentzia ebaluatuko dituen 2016/17 ikasturtean. ISEI-IVEIk, Berritzeguneekin batera, errendimendu-probak sortu ditu ondoko kompetentzia hauetarako:

- ***Euskarazko, Gaztelaniazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia***, entzumena eta irakurmena, eta mintzamena eta idazmena ebaluatzeko proposamen zehatzekin.
- ***Matematikarako kompetentzia***.
- ***Zientziarako kompetentzia***.

Horiek dira 236/2015 Dekretuko 54.3 artikuluan adierazitako bost kompetentziak. Ikastetxe bakoitzak erabaki ahal izango du soilik kompetentzia horien ebaluazioa egitea, edota hauei gehitzea beharrezkoak iruditu dakizkien beste kompetentzia batzuk.

2. ERRENDIMENDU PROBAK ETA HAUEK APLIKATZEKO ERABILI BEHARREKO EUSKARRIA.

Ikastetxeak berak erabakiko du ISEI-IVEIk eta Berritzeguneei sortutako probak aplikatuko dituen edota beren proba propioak erabiliko dituen. ISEI-IVEIren probak erabiliz gero, era berean adostu beharko dute errendimenduko proba guztiak erabiliko dituzten ala horietako batzuk bakarrik, eta aplikazioa euskarri informatikoan garatuko duten edota paperean egingo duten.

Erabaki honek ondorioak ditu ondorengo prozesu osoan, eta horregatik behar-beharrezkoa da erabakia hartua egon dadin 2017ko apirilaren 25a baino lehen. Ikastetxe batek ebaluazioa bere baliabide propioekin garatzea erabakitzen badu, hau da, Sailak ikastetxearen eskueran jarritako baliabideetako batera erabili gabe, ebaluazio prozesu osoa antolatu dezake egoki iruditzen zaion moduan, eta beraz, ondoren aipatzen diren gainerako puntuak ez diote eragingo.

ISEI-IVEIk proposatutako errendimendu-proba guztiak edo batzuk erabiltzea hautatuz gero, edo/eta txostenak sortzeko aplikazioa, kontuan izan behar da ondorengo atal hauetan aurkezten den informazioa, eta bereziki, fase bakoitzerako adierazten diren datak.

3. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASLEEN DATUAK EGIATZATZEA.

Probak euskarri informatikoan erabili ahal izateko edota emaitzen txosten indibidualak sortzeko, ezinbestekoa da ebaluazio honetan parte hartuko duten ikasleak identifikatzea ikastetxe bakoitzean. Prozesu hau osatzeko, aplikazio informatiko espezifikoak sortu da, eta



bertan txertatu dira zure ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasle guztiak, Sailak alde aurretik dituen datuetatik abiatuta. Beraz, bi zeregin baino ez dituzu izango:

- a) Egiaztatu talde bakoitzeko ikasleen zerrenda zuzena dela, eta oker dagoena zuzendu.
- b) Adierazi, beharrezkoa den kasuetan, ikasleren bat ebaluazio honen batez besteko emaitzetatik baztertzeko normalean aintzat hartu ohi den egoeraren bat ote dagoen.

Ezinbestekoa da kontuan izatea pauso honek gainerako zeregin guztiak baldintzatzen dituela, besteak beste ikasle bakoitzarentzako sarbide-kodeak ematea probak ordenagailuan egin ahal izateko edota emaitzen txosten individualizatuak sortzea.

4. ERRENDIMENDU PROBEN APLIKAZIOA.

Ikastetxe bakoitzari dagokio errendimendu-probak aplikatzea aurretik aukeratutako euskarrian. ISEI-IVEIk eta Berritzeguneak sortutako errendimendu-proba guztiak edo hauetako batzuk erabiltzea aukeratu baldin bada, datuen aplikazioa eta grabazioa ezinbestez egin beharko da jarraian adierazten diren daten artean.

- Ordenagailuan / tabletan burutzen diren proben aplikazioa sarean egingo da, eta beraz, Interneteko konexioa beharko da eta ISEI-IVEIk honetarako apropos sortutako aplikazioaren bidez egingo da. Proba-aldia: **maiatzaren 8a eta 19a bitartean.**
- Proba paperean egiten baldin bada, ikastetxeak berak jaitsi beharko ditu aukeratutako errendimendu-probak eta koadernotxoek kopiak egin ikasle bakoitzarentzat. Ikasleen emaitzak txertatzeko aldia: **maiatzaren 10a eta 24a bitartean.**

5. ERRENDIMENDU PROBEN ZUZENKETA.

ISEI-IVEIk eta Berritzeguneek sortu dituzten probek hiru item mota dituzte: itxiak, erdi-irekiak eta irekiak. Lehen bi motetakoetan -halakoak dira gehienak-, zuzenketa automatikoki egiten da. Item irekietan berriz, erantzunak testu bat idaztea eskatuko du, eragiketa matematiko bat burutzea, edo problema baten soluzioa adierazi beharko da, eta zuzenketa eskuz egin beharko da.

- Ikastetxeak probak ordenagailuz egitea erabakitzen baldin badu, ez du inolako zuzenketarik egin beharko: item itxiak automatikoki zuzenduko dira eta irekiak ISEI-IVEIk zuzenduko ditu.
- Ikastetxeak probak paperean egitea aukeratzen baldin badu, berak zuzendu beharko ditu item guztiak.
- Ikastetxeak bere proba propioak erabiltzen dituen kasuan, baina gero txostenak sortzeko aplikazioa erabili nahi, berak zuzendu beharko ditu item guztiak.



6. IKASLEEN ERANTZUNAK GRABATZEA.

Ikasle bakoitzaren erantzunak grabatu beharko dira ISEI-IVEIk sortutako aplikazio berezian. **Emaitzak sartzeko epea maiatzaren 10ean hasiko da eta 24an amaituko.**

- Probak ordenagailuz eginez gero, erantzun guztiak automatikoki grabatuko dira.
- Probak paperean eginez gero, aplikazio informatikoan grabatu beharko dira ikasle bakoitzak emandako item guztien erantzunak, goraxeago aipatu den epean.

➤ **SOILIK TXOSTENAK SORTZEKO APLIKAZIOA ERABILIKO DUTEN IKASTETXEENTZAT.**

Beren proba propiok aplikatzea erabaki eta txostenak sortzeko aplikazioa erabili nahi dutenek, aplikazio informatikoan grabatu beharko dituzte ikasleen emaitzak eta zehaztu zein zuzenketa-irizpide erabili dituzten eta nola eraman diren puntuazio horiek errendimendu mailetara. Era berean, ikastetxe hauek labur deskribatu beharko dute errendimendu maila hauetako bakoitza, izan ere, deskribapen hauek agertuko dira ikastetxeko txostenean.

Ikastetxeek une horretan egiaztatu eta zuzendu beharko dituzte bere ikasleen datuak, 3. puntuaz azaldu den antzeko modu batean.

Kasu guztietan, maiatzaren 24a baino lehen txertatu beharko dira emaitzak aplikazio informatikoan. Epe hori betetzen ez duten ikastetxeek ezingo dute emaitzen txostenik jaso.

7. EMAITZEN TXOSTENAK.

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazio prozesuan parte hartu eta ISEI-IVEIk txostenak sortzeko prestatutako aplikazioa erabiltzen duten ikastetxe guztiek jasoko dituzte ikastetxeko emaitzen txostena eta txosten indibidualizatu bana ikasle bakoitzaren familiarentzako. Ikastetxeek aukeratzen baldin badute, eta betiere nahikoa datu egonez gero, era berean jasoko dute Euskadi osoko emaitza konparatuen informazioa, hala nola bere ezaugarri berak dituzten ikastetxeetakoa ere.

1- EBALUATU BEHARREKO KOMPETENTZIAK AUKERATU

(236/2015 Dekretuaren 54.3 art.)

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARAZ

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: GAZTELANIAZ

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: INGELESEZ

MATEMATIKARAKO KOMPETENTZIA

ZIENTZIARAKO KOMPETENTZIA

EBALUAZIOA GARATZEKO HIRU AUKERA

I. ISEI-IVEI-REN PROBAK ETA TXOSTENEN APLIKAZIOA ERABILTzea

2- Ordenagailua edo tableta

2- Papera

3- Ebaluazioa egingo zaien ikasleen datuak egiaztatu

3- Ebaluazioa egingo zaien ikasleen datuak egiaztatu

4- Ordenagailu / tablet bidezko aplikazioa

4- Probak eta aplikazioa paperean inprimatu

5- Item guztiak automatikoki zuzendu

5- Item batzuk eskuz zuzendu

6- Konpetentzia bakoitzean ikasle bakoitzaren erantzunak automatikoki grabatu

6- Konpetentzia bakoitzean ikasle bakoitzaren erantzunak eskuz grabatu

7- Ikastetxeko eta familientzako txostenak, ISEI-IVEIk eginak. Euskadirekin eta beste ikastetxe berdin batzuekin alderatuta

7- Ikastetxeko eta familientzako txostenak, ISEI-IVEIk eginak. Euskadirekin eta beste ikastetxe berdin batzuekin alderatuta

II. IKASTETXEKO PROBAK ETA ISEI-IVEI-REN TXOSTENEN APLIKAZIOA ERABILTzea

2- Ikastetxeak erabakitako euskarrian

4- Proben aplikazioa

5- Itemak eskuz zuzendu

6- Puntuazioak eta kalifikazioak definitu. Ikasleen datuak berrikusi eta emaitzak eskuz grabatu

7- Ikastetxeko eta familientzako txostenak, ISEI-IVEIk eginak, konparazio-emaitzik gabe

III. PROBA ETA TXOSTEN PROPIOAK

2- Ikastetxeak erabakitako du euskarria

Ebaluazioaren antolaketa

Proben aplikazioa

Zuzenketa

7- Ikastetxeak bere txostena egiten du











8. EBALUAZIOAREN PLANGINTZA

Apirila						
Lu	Mar	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Maiatza						
Lu	Mar	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Ekaina						
Lu	Mar	Mi	Ju	Vi	Sa	Do
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

-  Jaiegunak, oporraldiak eta asteburuak.
-  Ikastetxeei email bat bidaliko zaie simulazio probeekin. Galdetegi bat bete beharko dute zehazteko zer aukera hautatuko duten ebaluatu beharreko bost kompetentzietako bakoitzean. Epea: apirilaren 25a.
-  ISEIren probak egingo dituzten ikastetxeek datuak eguneratu beharko dituzte eta esportatu ahal izango dituzte ikasleen kodeak.
-  Ikasleen emaitzen grabazio-prozesuaren hasiera.
-  Errendimendu-proben aplikazioa, zuzenketa eta emaitzen grabazioa. **Probak ordenagailuz egiten dituzten ikastetxeek ez dute zuzenketa beharrik, ez datuak grabatu beharrik.**
-  Ikasleen emaitzak txertatzeko azken eguna.
-  ISEI-IVEIn txostenak egitea.
-  Txostenak jaisten hasi litezke.